

ADMINISTRAZIO-AKORDIOA, ESPAINIAKO ERRESUMAREN ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAREN ARTEKOA

(2006/C 40/02).

Alde batetik, **Espainiako Erresumak**, eta, bestetik, **Europar Batasuneko Kontseiluak**,

komunikazioan erabilitako hizkuntzan, eta horretaz
ohartaraziko du herritarra.

Ikusita Kontseiluaren 2005eko ekainaren 13ko ondorioak, Kontseiluan eta, hala badagokio, Europar Batasuneko beste instituzio eta organo batzuetan hizkuntza gehigarriak ofizialki erabiltzeari buruzkoak,

Kontuan hartuz Batasunean badirela beste hizkuntza batzuk, Kontseiluaren 1/1958 Erregelamenduan adierazitakoez aparte, estatu kide baten Konstituzioan estatutua aitortua dutenak lurralde osoan edo zati batean, edo legez hizkuntza nazional bezala erabil daitezkeenak.

Kontuan hartuz Batasuna herritar guztiei hurbiltzeko egin beharreko ahaleginen esparruan hizkuntza-aniztasunaren aberastasuna azpimarratu behar dela, eta herritarrek instituzioekiko harremanetan beste hizkuntza batzuk erabiltzeko aukera faktore garrantzitsua dela Europar Batasunaren proiektu politikoarekin duten identifikazioa indartzeko.

Adostu dute **ADMINISTRAZIO-AKORDIO** hau sinatzea, Kontseiluan ofizialki erabili ahal izateko Espainiako Konstituzioaren arabera hizkuntza ofizialaren estatutua duten gaztelaniaz besteko hizkuntzak.

Europar Batasuneko Kontseiluari idatzizko komunikazioak bidaltzea

1. Espainiako Zuzenbidea aplikatuz Espainiako herritar batek Kontseiluari idatzizko komunikazioak bidali nahi badizkio Espainiako Konstituzioaren arabera hizkuntza ofizialaren estatutua duen gaztelaniaz besteko hizkuntza batean:
 - a) Espainiako Gobernuak horretarako izendatutako organismo eskudunari bidali beharko dio komunikazioa, azken horrek Kontseiluaren Idazkaritza Nagusiari bidal diezaion gaztelaniazko itzulpen ziurtatuarekin batera; komunikazioaren jasotze-data izango da Kontseiluak organismo eskudunaren itzulpen ziurtatua jasotzen duen eguna, bereziki Kontseiluak herritarrari erantzuteko epe bat duenean.
 - b) Kontseiluak organismo horri bidaliko dio gaztelaniazko erantzuna, azken horren ardura baita, Gobernuaren aginduz, Kontseiluaren erantzuna herritarrari helaraztea komunikazioan erabilitako hizkuntzan.
 - c) Kontseilua ez da inola ere arduratuko itzulpen horien edukiaz, eta hori espresuki jaso beharko da itzulpenen testuan.
2. Komunikazioa egin duen herritarrak epe bat badauka Kontseiluak emandako erantzuna bideratzeko, eta 1.a. puntuan xedatutakoaren salbuespen gisa, Kontseiluak zuzenean bidaliko dio erantzuna herritarrari, gaztelaniaz, eta organo eskudunari ere bai. Erantzun horretan, Kontseiluak adieraziko dio emandako erantzunari erantzuteko epea komunikazioa gaztelaniaz jasotzen duenetik aurrera hasiko dela zenbatzen. Kontseiluak erantzun horren kopia bidaliko dio organismo eskudunari, azken horren ardura baita, Gobernuaren aginduz, Kontseiluaren erantzuna herritarrari helaraztea

Kontseilua ez da inola ere arduratuko itzulpen horien edukiaz, eta hori espresuki jaso beharko da itzulpenen testuan.

3. Herritar batek Kontseiluari zuzenean bidaltzen dionean komunikazioa 1. puntuari adierazitako hizkuntzetako batean, Kontseiluak itzuli egingo dio, eta adieraziko dio berriro bidal diezaiokeela komunikazioa hizkuntza horretan, baina Espainiako Gobernuak horretarako izendatutako organismoaren bidez.
4. Administrazio-akordio hau sinatzen duten alderdiek konpromisoa hartzen dute akordio honetan sartzen diren komunikazioen konfidentzialtasun-arauak uneoro errespetatzeko behar diren neurriak har daitezzen, bereziki Espainiako Gobernuak izendatutako organismo eskudunak egindako itzulpenari dagokionez.

Ahozko esku-hartzeak Kontseiluaren bilkura batean

5. Osoko bilkura batean, Espainiako ordezkariak, hala badagokio, Konstituzioaren arabera estatutu ofiziala aitortua duen gaztelaniaz besteko hizkuntza bat erabili ahal izango dute, honako baldintza hauek betez:
 - a) Seihileko bakoitzaren hasieran, Espainiako ordezkari iraunkorrek zerrenda bat helaraziko dio Kontseiluaren Idazkaritza Nagusiari, aipatutako hizkuntza horietako bat erabiltzeko eskaera aurkezteko aukera duten Kontseilu-bilkurak zehaztuz
 - b) Kontseiluaren bilkura hasi baino zazpi aste lehenago gutxienez, Espainiako Ordezkaritza Iraunkorrek ahozko esku-hartzeetan aipatutako hizkuntzetako bat erabili nahi duen Espainiako ordezkariaren eskaeraren berri emango dio Kontseiluaren Idazkaritza Nagusiari (interpretazio pasiboa); eskaeraren behin betiko berrespena Kontseiluaren bilkura baino hamalau egun natural lehenago egin behar da beranduenez.
 - c) Printzipioz, eskaera horiek onartu egingo dira, salbu eta Kontseiluaren Idazkaritza Nagusiak, Interpretazio eta Konferentzia Zerbitzu Orokorreko Zuzendaritza Nagusiarekin kontsultatu ondoren, Espainiako Ordezkaritza Iraunkorri adierazten dionean ez dituela horretarako behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak.
6. Interpretazio pasiboaren zuzeneko eta zeharkako kostuak, Interpretazio eta Konferentzia Zerbitzu Orokorreko Zuzendaritza Nagusiak Kontseiluari fakturatzen dizkionak, Espainiako Ordezkaritza Iraunkorrek ordainduko ditu, baita baliogabetzen badira ere, hurrengo 11. eta 12. puntuetan adierazitakoaren arabera.

**Elkarrekin erabakitzeko prozeduraren bidez
onartutako egintzak argitaratzea**

7. Espainiako Gobernuak, edo hark horretarako izendatzen duen organismoak, aipatutako hizkuntzetara itzuli ahal izango ditu, zinpeko itzulpen bidez, Europar Batasunak elkarrekin erabakitzeko prozeduraz onartutako egintzak, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratuta agertzen diren bezala, eta Kontseiluaren Idazkaritza Nagusira bidali bide elektronikoz.
8. Kontseiluak bere artxiboetan gordeko ditu zinpeko itzulpen horiek, eta horien kopia emango die hala eskatzen duten Batasuneko herritar guztiei, ahal den neurrian bide elektronikoz.
9. Kontseiluak lotura bat ezarriko du bere Interneteko gunearen eta itzulpenak eskaintzen diren Espainiako Gobernuaren webgunearen artean. Kontseiluaren Interneteko gunean, aipatuko da, hizkuntza ofizialetan eta lan-hizkuntzan, Batasuneko instituzioak ez direla itzulpenen edukiaren erantzule, eta itzulpenek ez dutela balio juridikorik.
10. Zinpeko itzulpen bakoitzean, azpimarratuko da Europar Batasuneko instituzioak ez dutela itzulpenaren edukiari buruzko erantzukizunik, eta itzulpenak ez duela balio juridikorik. Ildo horretan, aipamen bat egingo da, dagokion hizkuntzan, zinpeko itzulpen bakoitzaren lehen orrialdean eta hurrengo orrialdeetako bakoitzaren goiburuan, bai eta itzulpen horiek eskuragarri dauden Espainiako Gobernuaren Interneteko webgunearen hasierako orrialdean ere.

Kostuak

11. Espainiako Gobernuak bere gain hartuko ditu administrazio-akordio hau aplikatzeak eragin ditzakeen zuzeneko eta zeharkako kostuak, Kontseiluari dagokionez.
12. Horretarako, Kontseiluaren Idazkaritza Nagusiak, sei hilean behin, aipatutako kostuak zehazten dituen ohar bat aurkeztuko dio Espainiako Ordezkaritza Iraunkorrari.. Espainiako Ordezkaritza Iraunkorrek dagokion zenbatekoa itzuli beharko du, jakinarazpen hori egin eta hilabeteko epean

Azken xedapenak

13. Akordio hau aplikatuko da Espainiako Gobernuak Kontseiluaren Idazkaritza Nagusiari 1., 2. eta 7. puntuetan jasotako itzulpenak egiteko izendatutako organismoaren berri ematen dion egunetik aurrera, betiere Kontseiluaren Idazkaritza Nagusiak Espainiako Gobernuari jakinarazi badio akordio hau aplikatzeko beharrezko neurriak hartu dituela.
14. Alderdiek, ados jarrita, erabaki dezakete administrazio-akordio hau berrikustea edo salatzea. Alderdiek akordioa nola aplikatzen den aztertuko dute, indarrean jarri eta urtebetera.